

## ZAINTZA HERRI AKORDIOA: MANIFESTUA

Hauskorrak gara.

Ez zaigu onartzea gustatzen, baina, izan, halaxe gara guztiak.

Ekilibristen gisa pasatzen dugu bizitza, oreka bila, eta, gutxien espero dugunean, haize-kolpe txar batek jo eta botatzen gaitu lurrera. Eta hautsi!

Ezer gutxi gara bakarka.

Esopo zaharraren alegia batek hala dio: hartu ziri bat eta erraz hautsiko duzu, krak, erditik.

Hartu sorta bat eta galanki kosta behar zaizu hura kraskatzea.

Sortak osatzea da, beraz, kontua.

Sendoago gara elkarrengana bilduta: familian, lagunartean, herrian... Komunitateak ematen digu babesa eta hauspoa. Elkarren berri duten eta elkar zaintzen duten herritarren sareak eusten dio gure orekari.

Behar bereziak ditugun neskato edo mutikook ezinbestekoak ditugu inguruko lagunak, zaindu eta babestuko gaituztenak. Zenbat eta sendoago lagun-sorta, orduan eta hobeto biziko gara. Berdin adin handiko pertsonok, edo gaixorik gaudenok, edo bizitzak kolpatutakook, edo haur txikiok... Guztiok izan gara, edo izango gara, zaintza behar duten pertsonak, ondo bizitzeko beste batzuen premia dutenak. Eta ondo hiltzeko.

Izan ere, ziri hauskorrak gara, bai, banaka hartuta.

Baina ez gaude bakarrik, zorionez.

Eta elkar zaintzen dugu.